

**EKONOMIAREN GARAPEN,  
JASANGARRITASUN ETA  
INGURUMEN SAILA**

Nekazaritzako, Arrantzako  
eta Elikagai Politikako  
Saiburuordetza  
elikagaien Kalitate eta  
Industriako Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE  
DESARROLLO ECONÓMICO,  
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO  
AMBIENTE**

Viceconsejería de Agricultura,  
Pesca y Política Alimentaria  
Dirección de Calidad e Industrias  
Alimentarias



Europar Batasunak  
kofinantzatua  
Cofinanciado por la UE

## Kalitate-araubideek estalitako produktuei buruzko informazio- eta sustapen-jardueretarako dirulaguntzak (7132-PEPAC 2023- 2027 esku-hartzea)

### Onuradunentzako baldintza orokorrak

- **Oraingoan sartu ditugu** aurreko aldian baino baldintza gehiago, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko araudiarekin lotuta daudenak.
- Enplegatuak dituzten enpresek ordainsari-erregistro bat izan beharko dute, 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera.
- 50 langile baino gehiago dituzten enpresek berdintasun-plan bat izan beharko dute.
- Pertsona juridikoek, sozietate zibilek eta ondasun-erkidegoek datu batzuk eman beharko dituzte Emakume Nekazarien Estatutua betetzen dutela egiaztatzeko. Horretarako, laguntzak arautzen dituen aginduaren III. eranskina bete beharko dute.

### Betekizun espezifikoak

- **Pertsona juridiko** onuradunen zuzendaritza-organoetan edo erabakiak hartzeko organoetan **emakumeen presentzia gutxienez orekatua izan beharko da**. Ordezkaritza orekatutzat jotzen da honakoa: lau kide baino gehiagoko kide anitzeko organoetan, sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkari bada; lau kide edo gutxiagoko kide anitzeko organoetan, ordea, bi sexuak ordezkari badaude. Baldintza hori laguntza emateko unean bete beharko da, eta une horretarako justifikatuta egon beharko da.
- Diruz lagundutako talde bateko kideak ezin dira izan helburu bererako laguntza ekonomikoa jaso duen beste lankidetzaren sustapen bateko kide.
- PEPACaren dirulaguntzen onuradunek Europar Batasunaren ikurra erabili beharko dute, 2022/129 (EB) Exekuzio Erregelamenduaren II. eranskinean ezarritako baldintza teknikoaren arabera, ikusgarritasun-, gardentasun- eta komunikazio-jarduerak egiten dituztenean. Enblema modu nabarmenean jasoko da komunikazio-material guztietan, hala nola produktu inprimatuetan edo digitaletan, webguneetan eta haien bertsio mugikorretan,

**EKONOMIAREN GARAPEN,  
JASANGARRITASUN ETA  
INGURUMEN SAILA**

Nekazaritzako, Arrantzako  
eta Elikagai Politikako  
Saillburuordetza  
elikagaien Kalitate eta  
Industriako Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE  
DESARROLLO ECONÓMICO,  
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO  
AMBIENTE**

Viceconsejería de Agricultura,  
Pesca y Política Alimentaria  
Dirección de Calidad e Industrias  
Alimentarias



Europar Batasunak  
kofinantzatua  
Cofinanciado por la UE

eragiketa bat gauzatzeari buruzkoak eta publikoari zuzendutakoak. Ikurrarekin batera,  
«Europar Batasunak kofinantzatua» adierazpena aurkeztu beharko da.

**Proiektuen balorazioa**

- Diruz lagundu daitezkeen gastu-kapituluen artean, bat sartu da, non gainerakoetan sailkatu ezin diren jarduerak sartzen diren, betiere helburutzat kalitate-araubideak sustatzea badute.
- Zeharkako kostuak egozteko aukera gehitu da (alokairua, ura, argia, etab.), langileen zuzeneko gastuen % 15ean oinarrituta, justifikatu beharrik gabe.
- Langile-gastuen kasuan, proiekturako onartutako guztizkoaren % 20rainoko tasa finkoan kalkulatzeko aukera ere ematen da.
- Laguntzaren gehieneko intentsitatea diruz laguntzeko moduko gastuaren % 70 da. Ehuneko hori kalkulatzeko, eskaera bakoitzari puntuazio bat esleitzen dioten balorazio-irizpide batzuk erabiltzen ditugu. Horrekin lotuta, alde batetik, irizpideen puntuazioa aldatu da eta, bestetik, irizpide berriak gehitu ditugu.